GETXO KULTURA

# EBAZPEN PROPOSAMENA/ PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

| PROPOSAMENAREN IDENTIFIKAZIOA/ IDENTIFICACIÓN DE LA PROPUESTA | | |
|---|---|---|
| Proposamena Id./ Id. Propuesta | Espedientea/ Expediente | Jarduera / Prozedura/ Actividad / Procedimiento |
| **PR/2026/288** | **460/2026** | **Kultura sortzeko dirulaguntzak/ Subvenciones para la creación cultural** |
| Espedientearen gaia/ Asunto del Expediente | | |
| **Getxo Sortzaileak 2026 Deialdia - Convocatoria** | | |
| Organo Kudeatzailea/ Órgano Gestor | | |
| **2150 Deialdiak kudeatzea / Gestión convocatorias de subvenciones** | | |
| Xedea/ Finalidad | | |
| **Prozedura Orokorra/ Procedimiento Genérico \ Jarduketa generikoa fiskalizazioarekin** | | |
| Ebazten duen Organoa/ Órgano que Resuelve | | |
| **Presidentea / Presidencia** | | |

PAULA CAVIEDES GIL (1, guztira 1)
BEHIN-BEHINEKO ZUZENDARIA / DIRECTORA ACCIDENTAL
Sinaduraren data: 17/02/2026
HASH: ae1652e548cf832badb2bcf2a73e9e74
GETXO KULTURA

Hori guztia, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 175. artikuluaren arabera, eta organo eskudunak hartzen duen azken erabakiari kalterik egin gabe, ebazpen-proposamen hau aurkezten da,

De conformidad con lo establecido en el art. 175 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, y sin perjuicio de la decisión final que adopte el órgano competente, se eleva la siguiente propuesta de resolución,

## EGITATEAK ETA ZUZENBIDEKO OINARRIAK/ HECHOS Y FUNDAMENTOS DE DERECHO

### AURREKARIAK

I. Getxo Kultura tokiko erakunde autonomoak, kultur arloan formakuntza, sorkuntza eta erakusketa sustatzea du helburu, besteak beste

II.- Dirulaguntzen deialdi honen oinarria kultura-sorkuntzaren garrantzia eta tokiko sormen-

### ANTECEDENTES DE HECHO

I.- El Organismo Autónomo Local “Getxo Kultura” tiene, entre sus fines fomentar la formación, la creación y la exhibición en el ámbito cultural.

II.- La presente convocatoria de subvención, tiene su fundamento en la importancia de la

Baliozkotze Kod.: 4DKYPW355ZAAM9PQCR93DD3JM
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 33

sektoreari emandako laguntza dira. Kultura-sorkuntza hainbat diziplina artistikoren bidez garatzen da, eta herri-administrazioaren zeregina da kultura-bizitzaren eragile diren sormen-prozesuak sustatzea.

creación cultural y en el apoyo al sector creativo local. La creación cultural se desarrolla mediante diversas disciplinas artísticas, y es tarea de la administración pública incentivar los procesos creativos que son el motor de la vida cultural.

III.- Dirulaguntzak Ematea arautzen duen Udal Ordenantza Arautzaileari jarraikiz, ekimenak eta jarduerak sustatzeko sariak eta dirulaguntzak norgehiagoka-prozedura arruntaren bidez eman behar dira. Aipatutako prozedurak deialdi honen bidez hasi behar du eta Getxo Kultura Tokiko Erakunde Autonomoko lehendakariak onartu behar du.

III.- En aplicación de la Ordenanza Municipal Reguladora de la Concesión de Subvenciones, el otorgamiento de premios y subvenciones para fomento de iniciativas y actividades ha de hacerse por el procedimiento ordinario de concurrencia competitiva. Dicho procedimiento ha de iniciarse con la presente convocatoria, a aprobar por la presidenta del Organismo Autónomo Local Getxo Kultura.

**ZUZENBIDE OINARRIAK**

**FUNDAMENTOS DE DERECHO**

I.- Getxoko Udalaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzen ordenantza orokorra (BAO, 2022ko martxoaren 16koa).

II.- Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra.

I.- Ordenanza general de subvenciones del Ayuntamiento de Getxo y sus organismos autónomos (BOB de 16 de marzo de 2022).

II.- Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

## EBAZPEN PROPOSAMENAREN XEDAPEN TESTUA/ TEXTO DISPOSITIVO DE LA PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

**AKORDIO-PROPOSAMENA**

1.- Kultur Sorkuntzarako dirulaguntza 2026ko **deialdia onestea.**

Dirulaguntza Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean jasotako oinarrien arabera emango da.

2.-Deialdi honen xede den saria finantzatzeko **gehienezko gastua onestea**, 150.000,00 eurokoa, 2026ko aurrekontuen kargura.

**PROPUESTA DE ACUERDO**

1º.- **Aprobar la convocatoria** de subvenciones para la creación cultural 2026.

La subvención se otorgará de acuerdo con las bases recogidas en la Ordenanza General de Subvenciones.

2º.- **Aprobar el gasto máximo** destinado a la financiación del premio objeto de la presente convocatoria, ascendente a 150.000,00 euros, con cargo a los presupuestos de 2026.

Baliozkotze Kod.: 4DKYPW355ZAAM9PQCR93DD3JM
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 33

3.- Deialdia **argitaratzea** Bizkaiko Aldizkari Ofizialean**,** Dirulaguntzen Datu-Base Nazionalaren bitartez, eta Getxo Kulturaren webgunean.

3º.- **Publicar** la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia a través de la Base de Datos Nacional de Subvenciones, y en la página web de Getxo Kultura.

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**

Baliozkotze Kod.: 4DKYPW355ZAAM9PQCR93DD3JM
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 33

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
kulturetxea@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

**KULTUR SORKUNTZARAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO 2026KO DEIALDIA**

**1.- OINARRI ARAUTZAILEAK**

Deialdi hau ondorengo ataletan ezarritakoaren arabera arautzen da, Getxoko Udalaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzen ordenantza orokorrean adierazitakoaz gain (BAO, 2022ko martxoaren 16koa).

**2.- HELBURUA**

Dirulaguntza hauen xedea da artelanak (antzezlanak, bisualak eta plastikoak, ikus-entzunezkoak, musikalak, literatura testuak, koreografiak eta beste sormen diziplina batzuetakoak) egitera zuzendutako sorkuntza prozesu zehatzak garatu nahi dituzten getxotar guztiei laguntzea zein udalerri honi lotutako mota honetako proiektuak garatzeko interesa duten pertsonei laguntzea ere.

Deialdi honek Getxo udalerritik kanpo ezagutarazten ere lagunduko du.

**3.- PERTSONA ONURADUNAK**

Laguntza hauek 18 urtetik gorako pertsona fisikoek eska ditzakete.

Adinaren baldintza frogatzeko kontuan izan beharreko data eskabideak aurkezteko epearen azken eguna izango da.

Gainera, hurrengo puntuetan dirulaguntza-lerro bakoitzean ezartzen diren baldintzak bete beharko dira.

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak jaso ahal izateko, Udalari, Ogasunari eta Gizarte Segurantzari dagozkien zerga-betebeharrak egunean izan behar dira.

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak jasotzeko, eskatzaileak ez du izan behar dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen dion zigor administratibo edo penalik, ezta dirulaguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, sexu-bereizkeriaren ondoriozkoak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005

**CONVOCATORIA 2026 PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA LA CREACIÓN CULTURAL**

**1.- BASES REGULADORAS**

La presente convocatoria se regula por lo establecido en los siguientes apartados, además de lo señalado en la Ordenanza general de subvenciones del Ayuntamiento de Getxo y sus organismos autónomos (BOB de 16 de marzo de 2022).

**2.- FINALIDAD**

Estas subvenciones tienen como finalidad ayudar a todas aquellas personas getxotarras que pretendan desarrollar procesos específicos de creación dirigidos a la realización de obras artísticas (teatrales, visuales y plásticas, audiovisuales, musicales, textos literarios, coreografías y obras de otras disciplinas creativas) y aquellas otras personas interesadas en desarrollar proyectos de este tipo vinculados a este municipio.

Esta convocatoria también contribuirá a dar a conocer Getxo fuera del término municipal.

**3.- PERSONAS BENEFICIARIAS**

Podrán solicitar estas ayudas las personas físicas mayores de 18 años.

La fecha a tener en cuenta para acreditar el requisito de la edad será el último día del plazo de presentación de solicitudes.

Además, se deberán cumplir los requisitos que se establezcan en cada línea de subvención en los puntos siguientes.

Es requisito para acceder a las ayudas previstas en la presente convocatoria estar al corriente de las obligaciones tributarias relativas al Ayuntamiento, Hacienda y Seguridad Social.

Es requisito para acceder a las ayudas previstas en la presente convocatoria no hallarse la persona solicitante sancionada administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de ayudas o subvenciones públicas o no estar incursa en alguna prohibición legal que inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición

Baliozkotze Kod.: 4DKYPW355ZAAM9PQCR93DD3JM
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 33

GETXO KULTURA

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
kulturetxea@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoaren arabera.

Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Deialdiaren xede diren dirulaguntzak eskuratu ahal izateko, ezinbestekoa da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 3 artikuluetan jasotako gainerako debekuetan sartuta ez egotea.

Es requisito para acceder a las subvenciones objeto de convocatoria no hallarse incurso/a en ninguna de las restantes prohibiciones recogidas en el artículo 13.2 y 3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Deialdi honen babesean, lerro guztiei dagokienez, eskatzaile berak ezin izango du lortu dirulaguntza bat baino gehiago.

Al amparo de la presente convocatoria, no se concederá más de una subvención al mismo solicitante en la totalidad de las líneas.

Eskatzaileek bi dirulaguntza-eskaera aurkez ditzakete gehienez, bi dirulaguntza-lerrotara aurkezteko aukera alde batera utzi gabe. Pertsona berak bi eskaera baino gehiago aurkezten baditu, bakarrik onartuko dira sarrera-erregistroaren arabera aurkeztutako lehena eta bigarrena.

Las personas solicitantes podrán presentar como máximo dos solicitudes de subvención, sin perjuicio de poder presentarse a dos líneas de subvención distintas. Si la misma persona presenta más de dos solicitudes, solo se admitirán las registradas en primer y segundo lugar.

**4.- DIRULAGUNTZA LERROAK ETA BALIABIDE EKONOMIKOAK**

**4.- LÍNEAS DE SUBVENCIÓN Y RECURSOS ECONÓMICOS**

Dirulaguntzen deialdi honetarako gehieneko kreditu erabilgarria 150.000 €-koa izango da.

El crédito máximo disponible para esta convocatoria de subvenciones será de 150.000 €.

Dirulaguntza lerroak:

Líneas de subvención:

A) Sorkuntza eszenikoa: edozein motatako testu eszenikoen dramaturgia, zirku-ikuskizunen edo dantza-koreografien diseinua, txotxongilo lanak (testuak eta pertsonaiak sortzea).

A) Creación escénica: dramaturgia de textos escénicos de cualquier índole, diseño de espectáculos circenses o coreografías de danza, obras de títeres (creación de texto y personajes).

18.900 euro, 6 proiektu diruz laguntzeko, bakoitza 3.150 eurokoa.

18.900 euros, para la subvención de 6 proyectos por un importe de 3.150 euros cada uno.

B) Ikus-entzunezko lanak eta bideoklipak sortzea:

B) Creación de obras audiovisuales y videoclips:

B.1) Edozein formatutarako ikus-entzunezko edo zinemako proiektu artistikoen gidoiak idaztea (publizitatekoak edo sustapenekoak ez direnak), , eta pieza artistikoak filmatzea, editatzea eta ekoiztea.

B.1) Escritura de guiones de proyectos artísticos (no publicitarios ni promocionales) audiovisuales o cinematográficos para cualquier formato, y filmación, edición y producción de piezas artísticas.

15.750 euro, 5 proiektu diruz laguntzeko, bakoitza 3.150 eurokoa.

15.750 euros, para la subvención de 5 proyectos por un importe de 3.150 euros cada uno.

B.2) Musika proiektuak sustatzeko bideoklipak filmatzea eta ekoiztea.

B.2) Filmación y producción de videoclips promocionales para proyectos musicales.

12.000 euro, 4 proiektu diruz laguntzeko, bakoitza 3.000 eurokoa.

12.000 euros, para la subvención de 4 proyectos por un importe de 3.000 euros cada uno.

C) Musika sortzea:

C) Creación musical:



Baliozkotze Kod.: 4DKYPW355ZAAM9PQCR93DD3JM
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 33

GETXO KULTURA

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
kulturetxea@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

C.1) Musika-konposizioak sortzea: partiturak idaztea, edozein motatako musika lanak sortzea, pieza artistikoak grabatzea eta editatzea.

C.1) Creación de composiciones musicales: escritura de partituras, creación de todo tipo de obras musicales, grabación y edición de piezas artísticas.

22.050 euro, 7 proiektu diruz laguntzeko, bakoitza 3.150 eurokoa.

22.050 euros, para la subvención de 7 proyectos por un importe de 3.150 euros cada uno.

C.2) Musika sorkuntza sustatzea: musika proiektuak hobetzeko aholkularitza kontratatzea edo musika-merkatuan zabaltzeko beharrezkoak diren zerbitzuak kontratatzea. Aurkeztutako proiektuaren emaitzak berekin ekarri behar du musika-lan bat sortzea.

C.2) Promoción de la creación musical: contratación de asesorías para la mejora de proyectos musicales o contratación de servicios necesarios para su difusión en el mercado musical. El resultado del proyecto presentado debe conllevar la creación de una obra musical.

12.000 euro, 4 proiektu diruz laguntzeko, bakoitza 3.000 eurokoa.

12.000 euros, para la subvención de 4 proyectos por un importe de 3.000 euros cada uno.

D) Literatura-lanak eta ilustrazioa sortzea: eleberria, ipuina, poesia, narrazioa, komikia, ilustrazioa eta haurrentzako obra ilustratuak. Diseinu grafikoa ez da barne hartzen, eta obra guztiak liburu batean argitaratzeko modukoak izan behar dira.

D) Creación de obras literarias e ilustración: novela, cuento, poesía, narración, cómic, ilustración y obras infantiles ilustradas. No se incluye el diseño gráfico, debiendo ser todas las obras susceptibles de ser publicadas en un libro.

25.200 euro, 8 proiektu diruz laguntzeko, bakoitza 3.150 eurokoa.

25.200 euros, para la subvención de 8 proyectos por un importe de 3.150 euros cada uno.

E) Hezkuntza- eta/edo bitartekaritza-proiektu kulturalak sortzea eta gauzatzea: 16 urtetik beherako umeei eta gazteei zuzendutako proiektuak, helburutzat dutenak umeak zein gazteak sorkuntza artistikoaren prozesura gerturatzea, betiere bitartekotza artistikoko prozesuak lehenetsiz.

E) Creación y ejecución de proyectos culturales educativos y/o de mediación: proyectos destinados a público infantil y juvenil menor de 16 años, cuyo fin sea la participación y/o el acercamiento de niños/as y jóvenes al proceso creativo artístico, priorizando procesos de mediación artística.

Modalitate honetan, proiektuak gauzatu beharko dira ikastetxeekin, erakunde publikoekin edo irabazi asmorik gabeko elkarteekin (eta euren partaidetza erantzukizun adierazpenaren bidez egiaztatu beharko da eskaera egiterakoan) eta memoriak egindako lana testuz eta ikus-entzunezko euskarriz jaso beharko du.

En esta modalidad, los proyectos deberán llevarse a cabo con centros escolares, entidades públicas o asociaciones sin ánimo de lucro (cuya disposición a participar se deberá demostrar en la solicitud mediante declaración responsable de la entidad participante), y la memoria deberá recoger el trabajo realizado con texto y soportes audiovisuales.

9.450 euro, 3 proiektu diruz laguntzeko, bakoitza 3.150 eurokoa.

9.450 euros, para la subvención de 3 proyectos por un importe de 3.150 euros cada uno.

F) Obra bisualak eta plastikoak sortzea, honako diziplina hauek barne hartuta: pintura, eskultura, argazkigintza, grabatua, forjaketa, buztingintza, urregintza, marrazketa, artisautza, oihalgintza eta instalazioa.

F) Creación de obras visuales y plásticas, en las que se incluyen las siguientes disciplinas: pintura, escultura, fotografía, grabado, forja, cerámica, orfebrería, dibujo, artesanía, textil e instalación.

22.050 euro, 7 proiektu diruz laguntzeko, bakoitza 3.150 eurokoa.

22.050 euros, para la subvención de 7 proyectos por un importe de 3.150 euros cada uno.



Baliozkotze Kod.: 4DKYPW355ZAAM9PQCR93DD3JM
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 33

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
kulturetxea@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

G) Sormenezko beste diziplina batzuetako obrak sortzea: aurreko modalitateetako batean ere sartzen ez diren proiektuak, kultura sektorearen baitan garatzen direnak, ingurune digitalari, medio berriei eta arte digitalari lotutako proiektuak lehenetsiz.

12.600 euro, 4 proiektu diruz laguntzeko, bakoitza 3.150 eurokoa.

Eskaerarik ez egoteagatik edo baldintzak ez betetzeagatik dirulaguntza lerro batean ezarritako zenbatekoa agortzen ez bada, soberako kopurua beste lerro batean dirulaguntzak emateko erabili ahal izango da, betiere osotasunerako ezarritako kreditua gainditzen ez bada. Kasu horretan, Balorazio Batzordeak gainerako lerroen artean banatzeko proposamena egingo du, lerro bakoitzeko eskaera-kopurua eta hasieran hautatu gabeko proiektuek lortutako puntuazioa kontuan hartuta.

Proiektuak bertsio originalean aurkeztu beharko dira, eta ezingo dira itzulpenak izan.

Bazter uzteko arrazoia izango da obra guztiz garatuta aurkeztea eskabidea egiterakoan; hala, proiektuak aurkeztea soilik onartuko da.

Eskatzaileak bakarka sortutako obrak izan behar dira.

**5.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA.**

Eskabideak modu telematikoan aurkeztu ahal izango dira https://sede.getxo-kultura.eus/ (Deialdiak) egoitza elektronikoan, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozeduraren 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako gainerako bitarteko eta lekuetan.

Informazioa eta eskaerak udalaren webgunean ere egongo dira eskuragarri: www.getxo-kultura.eus/deialdiak/

Eskabideak aurkezteko epea deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean zabalduko da eta bi hilabeteko epean amaituko da. BAOn argitaratzea Dirulaguntzen Datu-base Nazionalaren bitartez egingo da.

G) Creación de obras de otras disciplinas creativas: proyectos no incluidos en ninguna de las modalidades previas, que se desarrollen dentro del sector cultural, priorizando los proyectos vinculados al entorno digital, nuevos medios y arte digital.

12.600 euros, para la subvención de 4 proyectos por un importe de 3.150 euros cada uno.

Cuando por falta de solicitudes o incumplimiento de requisitos, no se agotara la cuantía establecida en una de las líneas, el crédito consignado podrá ser utilizado para la concesión de subvenciones en las otras líneas, siempre y cuando no se supere el crédito establecido para la totalidad. En este caso, el jurado realizará una propuesta de reparto entre las restantes líneas, atendiendo al número de solicitudes de cada línea y a la puntuación obtenida por los proyectos inicialmente no seleccionados.

Los proyectos deberán presentarse en su versión original y no podrán ser traducciones.

Será causa de exclusión la presentación de obra totalmente desarrollada en el momento de la solicitud, admitiéndose solamente la presentación de proyectos.

Se trata de obras que deberán ser creadas de manera individual por la persona solicitante.

**5.- PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES.**

Las solicitudes podrán presentarse de forma telemática en la sede electrónica https://sede.getxo-kultura.eus/ (Convocatorias), y en los restantes medios y lugares previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo de las Administraciones Públicas.

La información y solicitudes estarán también disponibles en la web municipal: www.getxo-kultura.eus/convocatorias/

El plazo para la presentación comenzará a computar al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia y terminará en un plazo de 2 meses. Dicha publicación se realizará a través de la Base de Datos Nacional de Subvenciones.

Baliozkotze Kod.: 4DKYPW355ZAAM9PQCR93DD3JM
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 33

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
kulturetxea@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

Eskaerak, egoitzan dagoen eta I. Eranskin gisa agertzen den inprimakiaren bidez aurkeztuko dira.

Las solicitudes se cumplimentarán a través del formulario que se encuentra en la sede y que aparece como Anexo I.

Eskabideak aipatutako epetik kanpo aurkezten badira, ezetsi eta artxibatu egingo dira, besterik gabe.

La presentación de solicitudes fuera del plazo mencionado dará lugar a la desestimación de dichas solicitudes, archivándose las mismas sin más trámite.

Eskatzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko zeinahi hizkuntza ofizialetan aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta atxikitako egiaztagiriak. Halaber, eskabidearen ondoriozko jardunetan, eta prozedura osoan, eskatzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Las personas solicitantes podrán presentar la solicitud, junto con las acreditaciones que la acompañen, en cualquiera de los idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Así mismo, en las actuaciones derivadas de la solicitud, y durante todo el procedimiento, se utilizará el idioma elegido por la persona solicitante, tal y como establece el artículo 5.2.a) y 6.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera.

Eskabideak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartu direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

La presentación de solicitudes supone la aceptación expresa y formal de las condiciones que definen las bases de la presente convocatoria.

**6.- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA.**

**6.- DOCUMENTACIÓN A APORTAR JUNTO CON LA SOLICITUD.**

Dirulaguntza jaso ahal izateko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

Para poder optar a la subvención, se deberá presentar la siguiente documentación:

6.1.- <u>Eskatzaileari buruzko dokumentazioa</u>:

a) I. eranskina: eskabidea
b) II. eranskina: artista eskatzailearen ibilbidea.
c) Eskatzaileak deialdi honetan garatu beharreko kultura-diziplinari dagokionez ikastetxe publikoek emandako ikasketa-tituluak, 9.3 puntuaren arabera baloratzeko.

6.1.- <u>Documentación relativa a la persona solicitante</u>:

a) Anexo I: solicitud
b) Anexo II: trayectoria del/a artista solicitante.
c) Títulos de estudios expedidos por centros educativos públicos con relación a la disciplina cultural a desarrollar en la presente convocatoria por parte de la persona solicitante, a efectos de su valoración de acuerdo con el punto 9.3.

Ofizioz eskatuko da Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Ogasunarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, salbu eta interesdunak berariazko aurkakotasuna adierazten badu (I. eranskinean) eta, kasu horretan, ziurtagiria aurkezten badu. Zergak Estatuko Ogasunean ordaindu behar baditu, administrazio horrekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Se requerirá, de oficio, certificado de estar al corriente de sus obligaciones con la Hacienda Foral del Territorio Histórico de Bizkaia, Gipuzkoa o Álava salvo que la persona interesada manifieste su oposición expresa (en el anexo I) y, en ese caso, entregue el certificado. En el caso de que deba tributar en la Hacienda estatal, deberá de presentar el correspondiente certificado de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones con esta administración.



Baliozkotze Kod.: 4DKYPW355ZAAM9PQCR93DD3JM
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 33

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
kulturetxea@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

Ofizioz eskatuko zaio Gizarte Segurantzari erakunde horrekin egunean egotearen ziurtagiria, salbu eta interesdunak esanbidezko aurkakotasuna adierazten badu (I. eranskinean) eta, kasu horretan, ziurtagiria aurkezten badu.

Se requerirá, de oficio, a la Seguridad Social, certificado de estar al corriente con esta entidad, salvo que persona interesada manifieste su oposición expresa (en el anexo I) y, en ese caso, entregue el certificado.

Ofizioz eskatuko zaio Getxoko udalari erakunde horrekin egunean egotearen ziurtagiria, salbu eta interesdunak esanbidezko aurkakotasuna adierazten badu (I. eranskinean) eta, kasu horretan, ziurtagiria aurkezten badu.

Se requerirá, de oficio, al Ayuntamiento de Getxo, certificado de estar al corriente con esta entidad, salvo que persona interesada manifieste su oposición expresa (en el anexo I) y, en ese caso, entregue el certificado.

6.2.- <u>Proiektuari buruzko dokumentazioa</u>:

6.2.- <u>Documentación relativa al proyecto</u>:

Proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira.

Los proyectos podrán ser presentados en cualquiera de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca.

Proiektuari buruzko dokumentazio guztia artxibo elektroniko batean aurkeztuko da. Artxiboek bateragarriak izan beharko dute erregistro elektronikoaren plataformarekin. Bideoak eta audioak webgunearen bidez ere aurkeztu ahal izango dira. Aurkeztutako dokumentazio elektroniko guztiaren gehieneko tamaina 50 Mb-koa izango da. Fitxategi grafikoen, soinudunen eta ikus-entzunezkoen formatuak JPEG, AVI, MOV, MPEG edo FLV izango dira.

Toda la documentación relativa al proyecto se presentará en un archivo electrónico. Los archivos deberán ser compatibles con la plataforma de registro electrónico. Los vídeos y audios también podrán presentarse proporcionando una dirección web para su consulta. El tamaño máximo de toda la documentación electrónica presentada será de 50 Mb. Los formatos de los archivos gráficos, sonoros y audiovisuales serán JPEG, AVI, MOV, MPEG o FLV.

d) III. eranskina: proposamenaren laburpen-fitxa. Bertan, atal bat jaso beharko da, eskatzaileak eta proiektuak Getxorekin duten lotura azaltzeko.

e) IV. eranskina: modalitate bakoitzari dagokion azalpen-memoria. Horren edukian, dirulaguntzaren lerro bakoitzerako adierazitako dokumentazioa sartu beharko da.

f) Erakunde publiko edo pribatu baten lankidetza edo inplikazioa aurreikusiz gero proiektuan, partaidetza horren adostasuna egiaztatzeko ziurtagiri sinatua aurkeztu beharko da. Ziurtagiria ez aurkezteak eskabidea prozesutik kanpo uztea eragingo du automatikoki.

d) Anexo III: ficha resumen de la propuesta, la cual deberá incluir un apartado donde se explique la vinculación de la persona solicitante y del proyecto con Getxo.

e) Anexo IV: memoria explicativa correspondiente a cada modalidad. En el contenido de la misma, se deberá incluir la documentación descrita para cada línea de subvención.

f) En caso de prever la colaboración o implicación de una entidad pública o privada en el proyecto, se deberá presentar un certificado firmado que corrobore la conformidad de dicha participación. La no aportación de dicho compromiso conllevará la exclusión automática del proceso.

<u>A) Sorkuntza eszenikoa</u>:

<u>A) Creación escénica</u>:

Azalpen memoria, proiektua aurkezteko, edukiaren argumentuaren sinopsia zehazteko, eta aurreikusitako luzera, daukan interesa eta eszenaratzeko aukerak jakinarazteko.

Memoria explicativa en la que se presente el proyecto, se especifique la sinopsis argumental del contenido, extensión prevista, el interés del mismo y sus posibilidades de escenificación.

Baliozkotze Kod.: 4DKYPW355ZAAM9PQCR93DD3JM
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 33

GETXO KULTURA

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
kulturetxea@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

- Antzezlanen kasuan:
Antzezlanaren testuaren lehenengo 10 orrialdeen lagina.

- Txotxongilo emanaldien kasuan:
Emanaldiaren testuaren lehenengo 10 orrialdeen lagina eta pertsonaien eta eszenografiaren deskribapena.

- Dantza koreografien eta zirku ikuskizunen kasuan:

Helburuak eta garapen plana; dirulaguntza ematekotan, amaierako justifikaziorako aurreikusitako elementuen edukiak, formatua eta metodologia. Horien artean, gutxienez, honako hauek egon behar dira:

a. Garatutako prozesuaren amaierako memoria-txostena.
b. Aurkezpena edo bestelako jarduera irekiren bat lotutako eremu profesionaletan. Jarduera hori onuradunak berak antolatu eta zabaldu beharko du, eta Euskadin egin beharko da.

B) Ikus-entzunezko lanak eta bideoklipak sortzea:

B.1) Edozein formatutarako ikus-entzunezko edo zinemako proiektu artistikoen gidoiak idaztea (publizitatekoak edo sustapenekoak ez direnak), eta pieza artistikoak filmatzea, editatzea eta ekoiztea.

- Gidoiaren lehenengo 10 orriak edo 1 eta 3 minutu bitarteko ikus-entzunezko piezan datzan lagin bat.

- Azalpen memoria, zera barne: proiektuaren aurkezpena, edukiaren argudioaren sinopsiaren zehaztasunak, aurreikusitako luzera, daukan interesa eta zabaldu eta erakusteko dituen aukerak.

B.2) Musika-proiektuak sustatzeko bideoklipak filmatzea eta ekoiztea.

- Azalpen-memoria: bideokliparen aurkezpena, bideokliparen xede den musika-proiektuaren aurkezpena (egilea, interpretazioa eta obra), edukiaren argumentu-sinopsia edo storyboarda, aurreikusitako luzera, kronograma eta lan plana, bideokliparen fitxa teknikoa (pertsonal teknikoa eta artistikoa), bideoklipa argitaratzeko

- En el caso de obras teatrales:
Muestra consistente en las primeras 10 páginas del texto teatral.

- En el caso de obras de títeres:
Muestra consistente en las primeras 10 páginas del texto teatral y descripción de personajes y escenografía.

- En el caso de coreografías de danza y espectáculos de circo:

Objetivos y plan de desarrollo; contenidos, formato y metodología de los elementos previstos para la justificación final de la subvención en caso de concesión, y entre los cuales, deberán encontrase al menos los siguientes:

a. Informe-memoria final del proceso desarrollado.
b. Presentación u otro tipo de actividad abierta en ámbitos profesionales relacionados. Esta actividad deberá ser organizada y difundida por la propia persona beneficiaria y realizarse en Euskadi.

B) Creación de obras audiovisuales y videoclips:

B.1) Escritura de guiones de proyectos artísticos (no publicitarios ni promocionales) audiovisuales o cinematográficos para cualquier formato, y filmación, edición y producción de piezas artísticas.

- Muestra consistente en las primeras 10 páginas del guion o en una pieza audiovisual que dure entre 1 y 3 minutos.

- Memoria explicativa en la que se presente el proyecto, se especifique la sinopsis argumental del contenido, extensión prevista, el interés del mismo y sus posibilidades de distribución y exhibición.

B.2) Filmación y producción de videoclips promocionales para proyectos musicales.

- Memoria explicativa en la que se presente el videoclip, se presente el proyecto musical objeto del mismo (autoría, interpretación y obra), se especifique la sinopsis argumental del contenido o storyboard, extensión prevista, cronograma y plan de trabajo, ficha técnica del videoclip (personal técnico y artístico) fecha prevista para



Baliozkotze Kod.: 4DKYPW355ZAAM9PQCR93DD3JM
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 33

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
kulturetxea@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

aurreikusitako data eta aurreikusitako banaketa-bideak.

C) Musika sorkuntza:

C.1) Musika-konposizioak sortzea: partiturak idaztea, edozein motatako musika lanak sortzea, pieza artistikoak grabatzea eta editatzea.

- 1 eta 3 minutu bitarteko audioa izango den piezaren lagin bat.

- Azalpen memoria, zera barne: proiektuaren aurkezpena, planteamendu tekniko eta artistikoaren zehaztasunak, aurreikusitako luzera, daukan interesa eta zabaldu eta erakusteko dituen aukerak.

C.2) Musika sorkuntza sustatzea: musika proiektuak hobetzeko aholkularitza kontratatzea edo musika-merkatuan zabaltzeko beharrezkoak diren zerbitzuak kontratatzea. Aurkeztutako proiektuaren emaitzak berekin ekarri behar du musika lan bat sortzea.

- Azalpen-memoria, honako hauek azalduz: musika-proiektua, dirulaguntzaren xede den aholkularitzaren helburua, aurreikusitako musika-lan berriaren deskribapena; izen-abizenak, kontzeptuak eta aurrekontu banakatua; kronograma eta lan-plana, eta espero diren emaitzak.

D) Literatura-lanak eta ilustrazioa sortzea:

- Literatura testuaren edo komikiaren lehenengo 10 orrialdeetan datzan lagina; ilustrazioen kasuan, 5 orrialdekoa.

- Azalpen memoria, zera barne: proiektuaren aurkezpena, edukiaren argudioaren sinopsiaren zehaztasunak, aurreikusitako luzera, daukan interesa eta argitaratzeko dituen aukerak.

E) Hezkuntzako proiektu kulturalak sortzea eta gauzatzea:

- Azalpen memoria, proiektua, helburuak, parte-hartzaileak (cv), publiko objektiboa, kronograma, espazioa eta espero diren emaitzak aurkezteko, bai eta dauzkan interesa eta jarraitzeko aukerak ere, eta baloratu ahal izateko garrantzitsua izan daitekeen informazio oro.

- Proiektuan parte hartzen duten ikastetxe, erakunde edo elkarteen konpromiso gutunak.

la publicación del videoclip y los canales de distribución previstos.

C) Creación musical:

C.1) Creación de composiciones musicales: escritura de partituras, creación de todo tipo de obras musicales, grabación y edición de piezas artísticas.

- Muestra de la pieza consistente en un audio que dure entre 1 y 3 minutos.

- Memoria explicativa en la que se presente el proyecto, se especifique el planteamiento técnico y artístico, extensión prevista, el interés del mismo y sus posibilidades de distribución y exhibición.

C.2) Promoción de la creación musical: contratación de asesorías para la mejora de proyectos musicales o contratación de servicios necesarios para su difusión en el mercado musical. El resultado del proyecto presentado debe conllevar la creación de una obra musical.

- Memoria explicativa en la que se presente el proyecto musical, objetivo de la asesoría objeto de la subvención, descripción de la nueva obra musical prevista; relación detallada con nombres y apellidos, conceptos y presupuesto desglosado; cronograma y plan de trabajo y resultados esperados.

D) Creación de obras literarias e ilustración:

- Muestra consistente en las primeras 10 páginas del texto literario o comic; en el caso de ilustraciones, 5 páginas.

- Memoria explicativa en la que se presente el proyecto, se especifique la sinopsis argumental del contenido, extensión prevista, el interés del mismo y sus posibilidades de publicación.

E) Creación y ejecución de proyectos culturales educativos:

- Memoria explicativa en la que se presente el proyecto, objetivos, participantes (cv), público objetivo, cronograma, espacio y resultados esperados; interés del mismo y sus posibilidades de continuidad, y toda aquella información relevante para su valoración.

Baliozkotze Kod.: 4DKYPW355ZAAM9PQCR93DD3JM
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 33

F) Obra bisualak eta plastikoak sortzea:

- Proiektuaren azalpen-memoria, zera barne: egingo den/diren pieza, obra edo artefaktuaren edo multzoaren deskribapena, oinarriak, kontzeptualizazioa, helburuak, justifikazioa, materialak, metodologia, proiektuaren interesa eta irismenaren aurreikuspena, bai eta baloraziorako garrantzitsua den informazio oro ere.

G) Sormenezko beste diziplina batzuetako obrak sortzea:

- Proiektuaren kalitatea eta faktura baloratzeko nahikoa den idatzizko eta/edo ikus-entzunezko formatuko lagin adierazgarria.

- Azalpen memoria, proiektua, helburuak, parte-hartzaileak (cv), xede-hartzaileak, kronograma, espazioa eta espero diren emaitzak aurkezteko, bai eta dauzkan interesa eta jarraitzeko aukerak ere, eta baloraziorako garrantzitsua izan daitekeen informazio oro.

Ez dira kontuan hartuko aurretik Getxo Kulturatik jasotako dirulaguntz(ar)en justifikazioa aurkeztu ez duten pertsonek egindako eskabideak.

**7.- ESKABIDE OSATU GABEAK EDO AKASTUNAK.**

Aurkeztu den eskabidea edo eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioa osatugabeak badira edo zuzen daitekeen akatsik badute, 10 lan eguneko epea utziko zaio eskatzaileari dokumentazioa osatzeko edo zuzentzeko; epe hori zuzenketa egin behar denaren jakinarazpena egin eta biharamunetik hasiko da. Akatsak zuzendu ezean edo dokumentazioa osatu ezean, eskabideari uko egiten diola ulertuko da.

**8.- NORGEHIAGOKA.**

Deialdi honetako dirulaguntzak norgehiagoka erregimenari jarraituz esleituko dira, alegia, aurkeztutako eskabideak balioztatu egingo dira eta, ondoren, dirulaguntza lerro bakoitzeko lehentasun-hurrenkera ezarriko da, deialdi honetan jasotako balorazio-irizpideen arabera.

- Cartas de compromiso de los centros escolares, entidades o asociaciones participantes en el proyecto.

F) Creación de obras visuales y plásticas:

- Memoria explicativa del proyecto en la que se especifique la descripción de la pieza, obra o artefacto o conjunto de los mismos a realizar, fundamentos, conceptualización, objetivos, justificación, materiales, metodología, el interés del proyecto y la previsión de su alcance, así como cualquier información relevante para su valoración.

G) Creación de obras de otras disciplinas creativas:

- Muestra representativa del proyecto en formato escrito y/o audiovisual que sea suficiente para valorar su calidad y factura.

- Memoria explicativa en la que se presente el proyecto, objetivos, participantes (cv), público objetivo, cronograma, espacio y resultados esperados; interés del mismo, sus posibilidades de continuidad y toda aquella información relevante para su valoración.

No se tendrán en cuenta aquellas solicitudes formuladas por personas que tengan pendiente la justificación de subvenciones recibidas de Getxo Kultura en ocasiones anteriores.

**7.- SOLICITUDES INCOMPLETAS O DEFECTUOSAS.**

En el caso de que la solicitud presentada o la documentación adjuntada sean incompletas o adolezcan de algún otro defecto subsanable, se requerirá a la persona solicitante para que proceda a su subsanación en el plazo máximo de 10 días hábiles, a contar desde el siguiente a la notificación del requerimiento, indicándole que de no hacerlo así, se le tendrá por desistido de su solicitud.

**8.- CONCURRENCIA COMPETITIVA.**

Las subvenciones ahora convocadas se otorgarán mediante el régimen de concurrencia competitiva, a través de la evaluación de las solicitudes presentadas y posterior establecimiento de una prelación entre las mismas, por cada una de las líneas de subvención, de acuerdo con los criterios de



Baliozkotze Kod.: 4DKYPW355ZAAM9PQCR93DD3JM
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 33

Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
kulturetxea@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

Edonola ere, dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa da kreditu egokia eta nahikoa egote dirulaguntza emateko ebazpena ematen den unean.

**9.- BALORAZIO-IRIZPIDEAK.**

Balorazio batzordeak honako irizpide hauek aplikatuko ditu. Hiru balorazio fase egongo dira.

1.- <u>Lehenengo fasea</u>: udalerriarekiko lotura. Eskatzaileak eta proiektuak Getxoko udalerriarekin duten lotura: 18 puntu gehienez.

1.1. Getxon erroldatua: 4 puntu.
1.2. Getxotarren lankidetza profesionala: 4 puntu gehienez.
1.3. Getxoko ondareari lotutako gaia: 4 puntu gehienez.
1.4. Getxoko publikoen partaidetza: 4 puntu gehienez.
1.5. Aurreko deialdian hautatu gabeko pertsonek 2 puntu jasoko dituzte automatikoki.

Fase honetan gutxienez 10 puntu lortzen ez dituzten eskaerak deialditik kanpo geratuko dira.

2. <u>Bigarren fasea</u>: proiektuaren balorazioa: 64 puntu gehienez.

2.1. Aurkeztutako proiektuaren kalitatea: 24 puntu gehienez.
2.2. Aurkeztutako proiektuaren interesa; proposatutako gaiaren originaltasuna edo gaiari heltzeko modua baloratuko dira nagusiki: 15 puntu gehienez.
2.3. Zenbateko aukera daukan proiektuak jarraipena izateko, bai proiektuaren ezaugarriengatik zein bere interes eta irismenagatik: 15 puntu gehienez.
2.4. Euskararen presentzia, erabilera eta kontzeptualizazioa: 5 puntu gehienez.
2.5. Genero-berdintasun ikuspegiaren txertaketa: 5 puntu gehienez.

Fase honetan gutxienez 25 puntu eskuratzen ez dituzten eskaerak deialditik kanpo geratuko dira.

3. <u>Hirugarren fasea</u>: eskatzailearen ibilbide artistiko eta profesionala: 18 puntu gehienez.

valoración recogidos en la presente convocatoria.

En todo caso, la concesión de las subvenciones queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el momento de la resolución de concesión.

**9.- CRITERIOS DE VALORACIÓN.**

El jurado aplicará los siguientes criterios. Habrá tres fases de valoración.

1.- <u>Primera fase</u>: vinculación con el municipio.La relación de la persona solicitante y su proyecto con el municipio de Getxo: 18 puntos máximo.

1.1. Persona empadronada en Getxo: 4 puntos.
1.2. Colaboración profesional de getxotarras: máximo 4 puntos
1.3. Temática vinculada al patrimonio getxotarra: máximo 4 puntos.
1.4. Participación de públicos getxotarras: máximo 4 puntos.
1.5. Las personas que no hayan sido seleccionadas en la convocatoria anterior obtendrán 2 puntos automáticamente.

Aquellas solicitudes que no alcancen 10 puntos en esta fase quedarán excluidas de la convocatoria.

2. <u>Segunda fase</u>: valoración del proyecto: 64 puntos máximo.

2.1. La calidad del proyecto presentado: 24 puntos máximo.
2.2. El interés del proyecto presentado valorándose principalmente la originalidad del tema propuesto o de la manera de abordarlo: 15 puntos máximo.
2.3. Las posibilidades que tiene el proyecto de tener continuidad, tanto por las características del mismo proyecto como por el interés y alcance: 15 puntos máximo.
2.4. Conceptualización, uso y presencia del euskera: 5 puntos máximo.
2.5. La inclusión de la perspectiva de igualdad de género: 5 puntos máximo.

Aquellas solicitudes que no alcancen 25 puntos en esta fase quedarán excluidos de la convocatoria.

3. <u>Tercera fase</u>: trayectoria artística y profesional de la persona solicitante: 18 puntos máximo.



Baliozkotze Kod.: 4DKYPW355ZAAM9PQCR93DD3JM
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 33

GETXO KULTURA
Basagoiti etorbidea, 77 (Muxikebarri zentroa)
48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 23
kulturetxea@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

Hautaketatik kanpo geratuko dira beren edukiengatik arraza, sexu, erlijio edo pertsonaren oinarrizko eskubideen aurka doan beste edozein arrazoirengatiko edozein diskriminazio mota sustatzen duten proiektuak.

Quedarán excluidos de la selección todos aquellos proyectos que por sus contenidos fomenten cualquier forma de discriminación por motivos de raza, sexo, religión o cualquier otra que atente contra los derechos fundamentales de la persona.

**10.- IZAPIDETZEA ETA EBAZPENA.**

**10.- TRAMITACIÓN Y RESOLUCIÓN.**

